

Udaletako hizkuntza politikaren azterketa 2014 - 2015



EUSKARAREN GIZARTE ERAKUNDEEN
KONTSEILUA

Ikuspegi orokorra



AZTERKETA DATUETAN

119 UDAL

Euskal Herri osoko 119 udal izan dira aztertutakoak. 5.000 biztanle baino gehiagoko udal guztiak eta administrazio eremu denetan kokatutakoak

2.000.000 BIZTANLE

Aztertu diren politikek 2 milioi biztanlerengan dute eragina, hau da, Euskal Herriko populazioaren bi herenetan.

3.500 ARGAZKI

3.500 argazki baino gehiago aztertu ditugu euskararen presentzia udalerrian zein den ezagutzeko. Alor formal eta informala aztertu ditugu.

500 TELEFONO DEI

Udalek herritarrei arreta nola egiten dieten aztertzeko 500 dei egin ditugu

MILAKA DATU

Milaka datu kontrastatu ditugu, ordenantzak, planak, erabakiak...

Zer da udaletako hizkuntza politikaren azterketa?

2006. urtean egin zuen Euskararen Gizarte Erakundearen Kontseiluak udaletan aplikatzen diren hizkuntza politiken lehen azterketa. Garai hartan, 66 izan ziren aztertutakoak. Udalerririk populatuena hautatu ziren eta gune administratibo guztiak hartu ziren kontuan. Beraz, udalerririk batzuk euskara ofiziala den guneetan daude kokatuta eta besteak ez.

2010. urtean 119 izan ziren aztertutakoak. Izan ere, UEMAn ari ziren udalek interesa erakutsi zuten aztertuak izateko eta kanpo azterketa independente batek beharrezko zituzten datuak eskaintzen ahal zituela uste zuten.

Orain aurkezten dugun hau 3. azterketa da, beraz. Bi momentu desberdinetan egin da, izan ere, Ipar Euskal Herrian dagoen hauteskunde zikloa ez dator bat Hegoaldekoarekin legegialdiak luzeagoak baitira. Ipar Euskal Herriko datuak aurkeztuta daude jada baina Euskal Herriko ikuspegia edukitzeko ekarri ditugu hona. 119 izan dira aztertutakoak eta horrek esan nahi du azterketak 66 herriren kasuan 3 legegialdiko perspektiba eskaintzen duela.

Azterketaren ezaugarriak

Azterketak datu objektiboak bakarrik aztertzen ditu. Hau da, ordenantza dagoen edo ez behatu dugun ordenantza horren egokitasunean sartu gabe. Lan hori aurrerago egin behar den zerbait da. Komeni da azpimarratzea azterketarako erabili diren datu guztiak publikoak direla eta horren harira, zaila da ulertzea datu horiek eskuratzeko hainbat kasutan izan dugun zailtasuna.

Hizkuntza politika instituzio batentzat definitzen duten egiturazko elementuak aztertu ditugu: corpus juridikoa, hau da hizkuntzaren garapenarekin zerikusia duten arauak. Plangintzak, bai barnekoak nola kanpokoak ere eta azkenik, baliabideak.

Bai 2006an bai eta 2010ean ere bildutako datuek nota bat eskaintzen zioten udalari. Aurten notaren ideia baztertu dugu eta azpimarra udal bakoitzaren ezaugarrietan jarri nahi izan dugu.

Datuak biltzeko hainbat galdetegi desberdin erabili ditugu. Horiek logikoa denez ez dira lehen azterketatik aldatu. Irakurketa orokor honetaz gain, aztertutako herri bakoitzak bere fitxa izango du lekuan lekuko egoera aztertuz.

Bukaerakoak

Lan honen helburu nagusia Udalei laguntzea da. Izan ere, norberaren hizkuntza politikaren ezaugarriak ongi ezagutzeko ezinbestekoa da aurrera egiteko. Zer hobetu behar den ezagutzeko garrantzi handikoa da etengabeko hobekuntzaren bidean pauso sendoak emateko.

Bestalde ez dugu sarrera hau bukatu nahi azterketa hau posible egin duten pertsona guztiei gure esker ona adierazi gabe. Euskalgintzako boluntarioak, euskara teknikariak, euskaltzaleak, oro har. Haiena da azterketaren arrakasta eta gureak egon litezkeen hutsuneak. Mila esker lagundu duzuen guztioi.


ORDENANTZAK

Euskararen ordenantzek biltzen dituzte euskararen normalizazioarekin zerikusia duten arau gehienak. Ordenantzaren bitartez lortzen da berme juridikoa eta ondorioz, hizkuntza eskubideen urraketa gelditzeko ezinbesteko tresnak dira.

Estatuek zalantzan jarri dute maiz udalek gai hau arautzeko duten eskubidea eta horrek ondorioak eduki ditu nagusiki Ipar Euskal Herrian.

Espainiako Estatuak maiz helegin ditu ordenantzak oso aurrera zihoazela kontsideratu duenean. Horrek udal askoren jarduna baldintzatu du eta beste bide batzuk jorratu dituzte estatuaren esku hartzea edo injerentzia sahiesteko baina, era berean, herritarrak babes juridikorik gabe utzi ditu.

EUSKAL HERRIKO DATUAK



Aztertu ditugun udalen % 58,12ak du euskara ordenantza. Beraz aztertu ditugun udalen erdiak baino gehiagok dute ordenantza. Oso portzentaia baxua iruditzen zaigu. Ez dutenen artean bereziki kezkatzen gaitu Bilboko egoerak. Izan ere, 2006tik ari gara ohartarazten eta gabezia hori mahaia gainean jartzen baina, ez da gabezia hori konpontzen. Oso kopuru altuak iruditzen zaizkigu. Hala ere, egiari zor argi ikusten da bi motibazio desberdin aurkitzen direla errealitate horren atzean. Alde batetik, aurrerago egin nahiko luketen udalen multzoa dugu Espainiako Estatuaren injerentziaren beldur plangintza bitartezko ihesbideak jorrotzen dituztenak eta bestaldetik, axolagabekeriak edo euskararen normalizazioaren kontrako politika garatzen dutenen multzoa dugu.

Ipar Euskal Herrian herriko etxeek ez dute bide hau jorratu. Erabaki solteak aurkitzen dira euskararekin zerikusia duten alor batzuk arautuz baina, inongo kasutan ez dugu ikusi testu artikulatu sendorik. Ipar Euskal Herriko herriko etxeentzat erronka bat da delibero edo ordenantza bat indarrean jartzea.


EAE

Ikusten denez EAEko datuak batzuek bestekoaren gainetik daude. Izan ere, Ipar Euskal Herriak batzuek bestekoa baldintzatzen du esan dugun bezala, inon ez baitago deliberozik indarrean.


Nafarroa Garaia

Nafarroako datuek ordea, EAEkoak baino baxuagoak dira. Kasu honetan aipagarria da herrialdearen hegoaldean kokatzen direla ordenantzarik ez duten udalerriak.

● Bai ● Ez ● Jaso ez



● Bai ● Ez ● Jaso ez



EUSKARA ZERBITZUA


Euskara zerbitzuak ezinbesteko tresnak dira euskararen normalizazioan aurrera egiteko. Zerbitzuok udalari ez ezik herritarrei eta gizarte eragileei ere eskaintzen diete haien lana.

Oso orokortua dago eskaintza hau eta esan liteke hutsuneak Nafarroako hegoaldean bakarrik aurki daitezkeela.

Hizkuntza politikaren alor asistentzialaren eredu paradigmatarikoa dira zerbitzu hauek haien funtzio nagusia euskararen normalizazioa, bultzatzea, sustatzea eta erraztea baita.

EUSKAL HERRIKO DATUAK

● Bai ● Ez ● Jaso ez




Euskara zerbitzuak aztertu ditugun udalen %91,3an daude. Oso zerbitzu orokorra da ikusten denez. Egia da zeregin desberdinak dituztela eta kudeatzen dituzten bitartekoen kasuan ere desberdintasun handiak daudela udal batetik bestera baina, datu ukaezina da zerbitzua eskaintzen dela udalerrri askotan.

Mapa aztertzen badugu konturatuko gara zerbitzurik ez duten udalerrriak Ipar Euskal Herrian (ikus Ipar Euskal Herriari buruzko azterketa) eta Nafarroako hegoaldean kokatzen direla. Banaketa hau beste alor batzuetan ere ikusiko dugu. Zatiketa administratiboak ahultzen ditu zonalde horiek eta gainera Nafarroaren kasuan ezagutza tasak baxuak dira udalerrri horietan. Garrantzi handikoa da ezaugarri hori ezagutza tasa baita hizkuntza politikaren nolakotasuna definitzen duena. Zenbat eta euskaldun gehiago orduan eta egokiagoak dira aplikatzen diren hizkuntza politikak.

EAE

Ikusten denez EAEko datuak EAEn aztertu ditugun udalerrri guztietan dute euskara zerbitzua salbuespenik gabe.


● Bai ● Ez ● Jaso ez



Nafarroa Garaia

Nafarroako datuek ordea, bestelako egoera bat islatzen dute. Egon badaude udal batzuk euskara zerbitzurik ere ez dutenak. Herrialdeko hegoaldean daude kokaturik udalerrriok.

● Bai ● Ez ● Jaso ez




PLAN OROKORRA

Hizkuntza politika, politika planifikatua da. Euskara normalizatzea epe luzeko zeregina den neurrian ezinbestekoak dira plangintzak aurrerapauso sendoak emateko eta ebaluazio sistema eragingarriak erabili ahal izateko.

Plan orokorrak gidatzen du prozesua eta plangintza sektorialek haren menpe egon behar dute osotasun bat eraikiz. Planik gabe ahula da oso hizkuntza politika, noraezean murgiltzen da eta perspektiba galtzea erraza da.

Plangintzarik gabe ezin da hizkuntza politika egokirik implementatu, plangintzarik gabe itsu dago udala.

EUSKAL HERRIKO DATUAK



Goiko grafikan ikusten denez, aztertu ditugun udalen % 82k dute plan orokorra. Planen egokitasunaren inguruko azterketarik ez dugu egin, aurrera begira egin beharrekoen artean gelditzen da zeregin hori. Beraz, plan orokorrak errealitate hedatua dira gurean. Planek hutsuneak dituzte hainbat arlotan ordea. Helburuak eta epeak ez daude egoki ezkondurik hainbat kasutan. Maiz, oso maiz aditz ebaluaezinak erabiltzen dira erredakzioetan: sustatu, lagundu, bultzatu eta gisa berekoak. Diseinu batzuk legealdi bat baino gehiago hartzen dute kontuan eta ondorioz erantzukizun politikoak banaturik agertzen dira. Hainbatetan, 2006an irakurri ahal izan ditugun helburuak errepikatu egiten dira 2014an. Horrek esan nahi du ez direla lortu, agian bete ezinak zirelako, agian ez direlako egoki kudeatu.

Planetan maiz agertzen da “”progresibitatea, “emeki emeki”, “arian arian”... kontzeptu hauek lausotu egiten dute plangintza eta zailtzen dute haren ebaluazioa. Kontuan hartzeko gaia da.


EAE

Ikusten denez EAEko datuak EAEn aztertu ditugun udalerrri gehien gehienetan dute euskara plan orokorra. %4ak bakarrik ez du.


Nafarroa Garaia

Nafarroako datuek ordea, bestelako egoera bat islatzen dute. Egon badaude udal ugari plan orokorrik ez dutenak, laurden batek ez du alegia. Hau kezkarria da oso esan bezala, planik gabe hizkuntza politika egokia egiterik ez baitago.

● Bai ● Ez ● Jaso ez



● Bai ● Ez ● Jaso ez




DIRU BALIABIDEAK

Diru baliabideak behar dira euskara normalizatzeko. Baliabide ekonomikoak, administratiboak eta giza baliabideak dira beharrezkoak euskara normalizatzeko.

Sail honetan, baliabide ekonomikoak bakarrik aztertuko ditugu. Kontseiluak aurrekontu orokorraren % 2 ezarri du erreferentzia bezala eta muga horren arabera egingo dugu azterketa.

Gauza jakina da dirua inbertitzea ezinbestekoa dela baina era berean, ongi inbertitzea ere garrantzi handikoa da. Inbertsio batzuk ebitatzen ahal dira arauen bitartez eta alor horretan aurrerago ikusiko dugun bezala udal ugari egiten dute huts.

EUSKAL HERRIKO DATUAK




Aztertutako udalen erdia baino gehiagok eskaintzen du % 2 baino gehiago euskararen normalizazioaren alde. Azpimarra jarri behar da datu horretan, izan ere, instituzio nagusien kasuan bat bera ere ez da iristen maila horretara. Beraz, udal askok egiten duen ahalegina txalotzekoa dela iruditzen zaigu. Azterketa honetan jasotzen ez bada ere, esan beharra dago kopururik baxuenak Ipar Euskal Herrian suertatzen direla.

EAEko datu orokorrak oso antzekoak dira Nafarrokoekin alderatuz gero batez ere, % 1,5etik aurrerako tartean. Orik baterakoan argi ikusten da Nafarroak udal gehiago duela tarte horretan. Oraingoan ere, Nafarroak Vasconcearen legearen bitartez pairatu behar duen zonifikazioak muga nabarmena ezartzen du bertan kokatzen baitira baliabide txikiena esleitzen dituzten udalak.


EAE

Ikusten denez EAEko datuak batz bestekoaren gainetik daude. Bereziki indartsua da %1,5 baino gehiago esleitzen duten udalerrien kopurua. Lautik hiru bertan kokatzen da.



Nafarroa Garaia

Nafarroako datuek ordea, bestelako egoera bat islatzen dute. %0 eta 1 artean kokatuta dauden udalak heren bat dira.




EUSKALGINTZARI ESKAINITAKO AZPIEGITURAK

Azpiegiturak eskaintzea Euskalgintzari laguntzeko modu eraginkorra da. Maiz, baliabide nahikorik ez duten udalek bide hau eskaintzen dute Euskalgintzak eskaintzen dituen mota guztietako zerbitzuek sortzen duten gastua arintzeko.


Kontuan hartzekoa da beraz, ahalegin hau.

EUSKAL HERRIKO DATUAK



Irudian ikus daitekeenez aztertutako udalen % 15ak Nafarroaren kasuan eta % 20ak EAEn kasuan nolabaiteko azpiegiturak eskaintzen dizkiete Euskalgintza osatzen duten erakundeei beren lana egin ahal izateko. Kontuan hartzeko kopurua da. Krisi garaietan udal askorentzat bide interesgarria izan liteke kasu askotan nabarmen aritzen dutelako Euskalgintzaren gastua. Edozein kasutan, zenbakien atzean errealitate desberdinak aurkitzen dira fenomeno hau geografikoki aztertuta bereziki kontzentratzen baita Gipuzkoan.

Azterketa honen helburua ez bada ere interesgarria iruditu zaigu Ipar Euskal Herriko kasua ekartzea. Izan ere, hemen herriko etxeen heren batek erabiltzen du bide hau Euskalgintzari laguntzeko. Horrek adierazten du Hegoaldeko Udalek areagotzen ahal dutela bide hau.




BEKA SISTEMAK

Helduak euskalduntzeak garrantzi estrategikoa du. Euskararen normalizazioaren zama belaunaldi berrietan uztea desegokia da oso. Helduak dira haur eta gazteentzako erreferentziak gizarteratzeko unean eta zentzu horretan helduek dituzten jarrerak beti dira eredugarriak onerako zein txarrerako.

Bestalde, bertako hizkuntza ikasteagatik ordaintzea guztiz baztertzekoa da, herritar ororentzat eskubidea da eta zentzu horretan eskubidearen egikaritzeak ezin du egon norberaren ahalmen ekonomikoaren baitan.

Beka sistema da doakotasunaren bidean udalek egin dezaketen eta egin behar duten ekarpena.

EUSKAL HERRIKO DATUAK




Grafikan ikusten denez, udal gehienek dute nolabaiteko beka sistema herritar helduek euskara ikas dezaten. % 71,79ak beka sistema unibertsala du bertan erroldatuta dauden herritarrentzat. Kasu batzuetan kostuaren % 100 eskaintzen dute. Aztertu ditugun udalen %14,53aren kasuan herritar batzuei bakarrik eskaintzen diete, langabetuei, etorkinei... Udalen % 13,68ak ez du beka sistemarik eskaintzen aztertu ditugunen artean.

Azterketa xeheago bat egiten badugu konturatuko gara EAEn aztertu ditugun udalen %100ak eskaintzen duela beka sistema, unibertsala edo partziala. Nafarroaren kasuan ia aztertutako udalen bosten batek herritar batzuei bakarrik eskaintzen die beka sistema.

Ipar Euskal Herriaren kasuan aztertu ditugun Herriko Etxeen % 33,73ak bakarrik eskaintzen du beka sistema helduek euskara ikas dezaten eta kasu guztietan unibertsala da bertan erroldatuta dauden herritar guztiei eskaintzen baitzaie.


EAE

Ikusten denez aztertutako udal guztiek batek ezik dute nolabaiteko beka sistema herritar helduek euskara ikastearen gastua arintzeko. Sistema unibertsala da bertan erroldatutako herritarrentzat.



Nafarroa Garaia

Nafarroako datuak okerragoak dira. Ez dira % 100era iristen eta gehiago dira herritar batzuei bakarrik eskaintzen dieten udalak.




HIZKUNTZA PAISAIA

Hizkuntza paisaiak garrantzia handia du euskararen normalizazioan. Presentzia etengabeak motibazio pragmatikoak elikatzen ditu eta gainera, euskaldunon hizkuntza eskubideak bermatzeko ezinbestekoa da elkarbitza arautzen duten elementuak euskaraz egotea.

Kasu honetan aztertu nahi izan dugu udalek haien ardurapeko hizkuntza paisaia euskaraz egoteko erabakirik hartu ote duten. Bestelako kontu bat da erabaki hori betetzen den edo ez. Horretarako, udal bakoitzak duen argazki sortara jo behar da.

EUSKAL HERRIKO DATUAK



Udalen ardurapeko hizkuntza paisaia euskaraz egon dadin instituzioen % 83,76ak hartu du erabakia. Hala ere, kontuan hartuz hizkuntza politikaren kasuan neurri hau gutxien gutxienekoa dela eta normalizazioaren bidean hamarna urte daramagula benetan adierazgarria beste datua da. Hau da, aztertutako udalen % 15ak ez du erabaki hori hartu.

Horri gehitu behar diogu behaketak agerian utzi duenez, erabaki hori hartuta ere ez dela kasu guztietan betetzen. Kritiko agertu behar dugu datu honekin.

Azterketa xeheago bat egiten badugu ohartuko gara EAEn datuak nabarmen hobeak direla eta antza handia dutela Nafarroakoekin. Horrek adierazten du udalenzat erabaki erraza dela hau, betetzean dago arazoa. Ipar Euskal Herriaren kasuan azpimarratu behar dugu aztertu ditugun udalerrien % 66,72ak ez duela erabaki hori hartu.


EAE

Ikusten denez EAEko datuak batzaz bestekoaren gainetik daude. Izan ere, Ipar Euskal Herriak batzaz bestekoa baldintzatzen du eta.


Nafarroa Garaia

Nafarroako datuak batzaz bestekoaren gainetik daude eta antza handia dute EAEkoekin. Hala ere, herrialdea aztertzen badugu konturatuko gara hizkuntza paisaia euskaraz egon dadin bermatzeko erabakia ez dela hartu nagusiki hegoaldeko udaletan.

● Bai ● Ez ● Jaso ez



● Bai ● Ez ● Jaso ez



ENTITATEAK ETA HIZKUNTZA PAISAIA


Udalek haien ardurapeko hizkuntza paisaiaz arduratzeaz gain, izan badute gizarte eragileek sortzen duten hizkuntza paisaian eragiteko ardura. Izan ere, gizarte eragile horietako askok udalak eskaintzen dituen diru laguntzetara jotzen dute.

Une horretan udalak ezartzen dituen hizkuntza irizpideek hirugarren batzuen ardurapeko paisaian eragiteko aukera dute. Erabaki zuzena da hori administrazioaren indarra euskararen normalizazioaren alde jartzen baita era guztiz transbertsalean.

Erabaki horiek erabaki traktoreak dira gizarte eragileen hizkuntza politikak baldintzetzen dituztelako euskararen alde.

EUSKAL HERRIKO DATUAK

● Bai ● Ez ● Jaso ez



Jakin nahi izan dugu udalek diruz laguntzen dituzten entitateei gutxienez errotulazioa euskaraz jartzeko baldintza jartzea erabaki ote duten. Egia da hizkuntza irizpideak askoz ere zabalagoak eta zorrotzagoak izan daitezkeela baina, gutxieneko bat erabaki ote den jakin nahi izan dugu. Ikusten denez, aztertutako udalen heren batek ez du erabaki hori hartu, hau da, ez da baliatzen instituzioaren indarra herritarren hizkuntza eskubideak bermatzeko entitateek eskaintzen dituzten zerbitzuetan. Alderatzten badugu datua udalek haien ardurapeko paisaiari dagokionarekin ohartuko gara 17 puntu egiten dugula atzera. Norbere buruarekin duen eskakizun maila ez du hirugarrenekin hainbat udalek.

Azterketa osoan zehar errealitate hau konstantea da. Erraz eskaini nekez eskatu.


Bestalde, ikuspegi geografikoa kontuan hartzen badugu ohartuko gara euskaldun tasa txikiena duten udalerrietan kokatzen direla erabaki hau hartu ez duten udalak. Hizkuntza politikaren izaera eraldatzaileari uko egiten diote horrela udal horiek.

Bukatzeko esango dugu Ipar Euskal Herriaren kasuan herriko etxe bakar batek ere ez duela erabaki hori hartu guk aztertu ditugun herriko etxeen artean.

EAE

Ikusten denez EAEko errealitatea bataz bestekotik urrun dago. Entitateetan eragiteko erabakia handiagoa da eta % 14a dira aurki ditzakegun salbuespenak aztertu ditugun udalen artean


● Bai ● Ez ● Jaso ez



Nafarroa Garaia

Nafarroan ordea bestelakoa da egoera. Urteetan indarrean dagoen legeak herrialdea zaitu du eta horrek ondorio zuzena du aplikatzen diren hizkuntza politiketan. Horrela, erabakia orokorra da herrialdeko iparraldean baina hegoaldean ez da aurkitzen.

● Bai ● Ez ● Jaso ez




MERKATARITZARAKO EGITASMOAK

Alor sozioekonomikoaren euskalduntzea ezinbestekoa da euskara normalizatzeko. Alor horren barruan merkataritzak garrantzia handia du gure egunerokotasunean eta hori dela eta espazio hori bereziki euskalduntzeak indarrez eragiten dio normalizazio prozesuari.

Hori dela eta, aztertu nahi izan dugu gure udalek merkataritzaren euskalduntzea bilatzen duen egitasmorik ba ote duten.

EUSKAL HERRIKO DATUAK



Datuak adierazten dutenez, alor sozioekonomikoak ez du jasotzen udal askoren arreta ez baita egitasmo bereziturik garatzen aztertu dugun udal askotan. Hizkuntza politika, oro har, desorekatua da. Nagusiki pertsonen euskalduntzean oinarritua dago eta bazter utziak dira gizarte espazioak. Horrek zama handia ekartzen dio normalizazio prozesuari irabazten ditugun hiztunek ez baitute aukera askorik euskara erabiltzeko haien egunerokotasunean eta horrek ikasitako hizkuntzaren kamustea dakar.

EAE eta Nafarroan oso antzekoak dira datuak, beraz, joera orokor baten aurrean gaude. Ipar Euskal Herriari dagokionez, datuak are okerragoak dira bere garaian aurkeztu genuen azterketak argi erakusten zuen bezala. Hemen Herriko Etxeen % 10ak bakarrik du egitasmoren bat merkataritzan eragiteko.

Bestalde, esan gabe doa egitasmoak asistentzialak direla, borondatezko sustapena bilatzen dute nagusiki eta baztertzen dira neurri betearazleak.


EAE

Ikusten denez EAEko datuak bat egiten dute Nafarroakoekin. Ez da ohikoa izaten, izan ere, beste alor batzuetan datu nabarmen hobeak izaten dituzte EAEko udalek.


Nafarroa Garaia

Kasu honetan ere, desberdintasun handiak daude Nafarroako iparraldea eta hegoaldearen artean.

● Bai ● Ez ● Jaso ez



● Bai ● Ez ● Jaso ez




DIRU LAGUNTZAK ENPRESETAN

Alor sozioekonomikoaren euskalduntzea ezinbestekoa da euskara normalizatzeko. Beraz, guztiz zentzuzkoa da diru inbertsioak egitea enpresetan errazagoa izan dadin euskalduntzea.

Herritarrok gure egunerokotasunaren heren bat gutxienez pasatzen dugu lanean eta denbora dezente beste langile batzuekin harremanetan. Ondorioz, enpresen espazioa euskalduntzea guztiz funtsezkoa da euskara normalizatzeko.

EUSKAL HERRIKO DATUAK



Egitasmoak aztertu dituguneko fitxarekin alderatzen badugu ohartuko gara gehiago direla dirua ematen dutenak egitasmoak garatzen dituztenak baino. Hala ere, % 53,85 dira bakarrik. Hizkuntza politikaren izaera asistentziala uzten du agerian honek. Nahiago izaten dute dirua eman egitasmoen bidean sartu baino. Kezkagarria iruditzen zaigu errealitate hau bere indar eraldatzailea oso mugatua delako.


Ahalegin nabarmen handiagoa egin beharko litzateke alor sozioekonomikoan. Euskararen normalizazioa hor ere jokutzen dugula ikusi beharko litzateke eta instituzioen ahalmen osoa jarri beharko litzateke hori horrela izateko.

Ipar Euskal Herriaren kasuan aztertu ditugun Herriko Etxeen artean ez dugu topatu bat bera ere laguntzak ematen dituenak. Kasu horretan, publikoa eta pribatuaren arteko etenak indartsu jokutzen du diru laguntzak ematea eragotzi arte. Hegoaldean ere maila apalagoan baina, maiz ez da begi onez ikusten alor publikotik pribatura diru inbertsioak egitea, euskararen normalizaziorako traba da hau. Hortxe egon liteke datuak ulertzeko gako nagusia.

EAE

EAEko datuetan joera nagusia ikus daiteke. Izan ere, diruz laguntzeko joera indartsuagoa da egitasmoak jorratzeko baino


● Bai ● Ez ● Jaso ez



Nafarroa Garaia

Kasu honetan ere, desberdintasun handiak daude Nafarroako iparraldean eta hegoaldearen artean. Batz bestekoak EAEren maila berean uzten du Nafarroa. Hala ere, datu baxuak dira.

● Bai ● Ez ● Jaso ez




LAGUNTZA PROFESIONALAK MERKATARIEI

Alor sozioekonomikoaren euskalduntzea laguntzeko bidea da beharrezko laguntza espezializatu profesionalak eskaintzea. Nagusiki itzulpenak dira eskaintzen direnak eta merkataritxikiei zuzenduak.

Edozein kasutan, normalizazio prozesuak azkartzeko unean beharrezkoak izaten dira horrelako laguntzak. Enpresei gastua arintzen die eta helburuak azkarrago lortzea ahalbidetzen da.

EUSKAL HERRIKO DATUAK

● Bai ● Ez ● Jaso ez




Enpresen euskalduntzeari dagokionez, hemen aurkitzen dugu laguntzeko biderik ohikoena. Maiz euskara zerbitzuak erabiltzen dira horretarako gehien eskatzen eta eskaintzen den laguntza itzulpena delako. Komenigarria litzateke enpresen euskalduntzeari begirako politikak orekatzea. Espazio hori ez dugu euskaldunduko zerbitzuak eskainiz bakarrik. Behar beharrezkoak dira arauak eta neurri betearazleak.

Ipar Euskal Herriaren kasuan errealitatea guztiz bestelakoa da. Izan ere, Herriko Etxeen % 10ak bakarrik eskaintzen baitu nolabaiteko laguntza profesionala.

EAE

EAEEn oso orokorrak dira laguntza profesionalak eta udal bakar batzuk salbu, gehienek eskaintzen dituzte.


● Bai ● Ez ● Jaso ez



Nafarroa Garaia

Nafarroan ere ohikoak dira laguntza profesionalak.

● Bai ● Ez ● Jaso ez




IKASTEKO ERRAZTASUNAK UDAL LANGILEEI

Udala instituzioa den neurrian mota guztietako zerbitzuak eskaintzen dizkie herritarrei. Horietako batzuk zeharka eskaintzen ditu azpikontrataturako enpresen bitartez baina, asko eta asko zuzenean eskaintzen ditu bere langileen bitartez. Hori dela eta, langileak euskalduntzeko plana eduki behar du udalak.

Plan horien parte handi bat langile erdaldunen euskalduntzea da eta haiei erraztasunak eskaintzea ezinbestekoa da prozesu hori behar den bermearekin egiteko.

Erraztasun horiek eskaintzen ote diren galdetu dugu.

EUSKAL HERRIKO DATUAK




Aztertu ditugun udalen % 70ak eskaintzen ditu erraztasunak udal langileek euskara ikas dezaten. Batzuetan dirua da, beste batzuetan denbora. Udalen % 12an bakarrik egiaztatu ahal izan dugu ez dela inolako erraztasunik eskaintzen. Kontuan hartzeko da informazio hau eskaini ez duen udalen kopuru handia.

Nafarroako datuak eta EAEkoak oso antzekoak dira ikusten denez. Harrigarria da hau, normalean Nafarroako datuak okerragoak izaten dira, desberdintasun geografiko handiekin. Hizkuntza politika asistentzialaren beste adibide bat da hau. Hori dela eta, Nafarroan datuak hobek dira.

EAE

EAEko datuak batz bestekoan daude


Legend: ● Bai (Blue), ● Ez (Purple), ● Jaso ez (Red)



Nafarroa Garaia

Nafarroako datuak batz bestekoan daude..

Legend: ● Bai (Blue), ● Ez (Purple), ● Jaso ez (Red)




LANGILE KONTRATATU BERRIAK

Langile kontratatu berriak euskaldunak izateko erabakia hartzeak onura asko ditu. Alde batetik, langile horren euskalduntzea ez da ordaindu behar, bestaldetik herritarrak artatzen dituenean hizkuntza eskubideak ez ditu urratuko eta gainera euskaraz lan egin ahalko du.

Horri gehitu behar diogu erabaki honek duen indar erakarlea. Izan ere, motibazio pragmatikoak indartzen ditu udal langilea izateko euskara jakin beharrak.

Neurri honek ez du kostorik, dirua aurreztea ahalbidetzen du eta motibazioak indartzen ditu. Bereziki interesgarria da.

EUSKAL HERRIKO DATUAK



Kasu honetan langile kontratatu berriak euskaldunak izateko erabakirik hartu ote den aztertu dugu. 4 dira aukerak: langile kontratatu berri guztiak euskaldunak izatea, gehienak euskaldunak izatea, batzuk bakarrik izatea edo erabaki hori hartu ez izana. Grafikan ikusten denez, aztertu ditugun udalen erdiak baino zerbait gutxiagok hartu du erabakia. Udalen bosten batek ez du erabaki hori hartu eta gainerakoek erabakia hartu dute baina ez die langile guztiei eragiten.

Hainbat aldiz aipatu dugu aplikatzen diren hizkuntza politiken izaera asistentziala nabarmena dela eta datu hauek ere hori uzten dute agerian. Izan ere, oraindik sartzen dira gure udaletan euskara ez dakiten langileak eta ondorioz, hizkuntza eskubideen urraketak segitzen du edo dirutzak ordaindu behar dira haien euskalduntzean.

Behar beharrezkoa da politika betearazleago bat motibazio pragmatikoak indartuko badira.



Ipar Euskal Herriaren kasuan aztertu ditugun herriko etxeen % 94,7k ez du horrelako erabakirik hartu.

EAE

EAEren kasuan aztertu ditugun udal guztiek eskatzen dute euskara jakitea langilea izateko. Aztertutako udalen erdiak baino zerbait gehiagok langile guztiei eskatzen die.

Nafarroa Garaia

Nafarroan aztertutako udalen gehiengo batek eskatzen du euskara jakitea. Hala ere, erabaki hori hartu ez dutenak aztertutakoen bostena dira ia.




OSOKO BILKURETAN MATERIALA ZER HIZKUNTZATAN AURKEZTU

Alkate eta zinegotzien harremanetarako eta eztabaidarako une gorena da osoko bilkura udalez ari garenean. Bertan aurkezten diren materialak nola dauden idatzita garrantzi handikoa da hizkuntza ohiturei dagokienez.

Materialak euskaraz aurkezteak hizkuntza eskubideak bermatzeko bidea izateaz aparte bide bakarra da hizkuntza ohitura egokiak ezartzeko. Grafiketan ohiko materiala nola aurkezten den ikusiko dugu.

EUSKAL HERRIKO DATUAK




Oraindik ere, aztertu ditugun udalen bosten batean erdaraz aurkezten dira osoko bilkurarako materialak. Material horietako asko kanpoko enpresek egindakoak dira, txosten teknikoak azpikontraten eskuetatik datozenak. Horrek adierazten du hizkuntza irizpideak ez direla behar bezain sendoak kanpora begirako harremani dagokienez.

Barrura begira ere hutsuneak daude. Sail desberdinek haien hizkuntza ohituren eraginez edo euskalduntze prozesuak ez direlako bukatu erdaraz aurkezten dituzte materialak.

Zorroztasun handiagoa eskatu beharko litzateke bereziki Nafarroan hemen udalen erdiak ez baitu materiala euskaraz aurkezten zinegotzien hizkuntza eskubideak nabarmen urratuz.


EAE

EAEren kasuan materiala erdaraz aurkezten duten udalen kopurua % 21,62koa da. Oso handia iruditzen zaigu.



Nafarroa Garaia

Nafarroako datuak bereziki txarrak dira. Ia udalen erdiak erdara hutsez aurkezten ditu materialak osoko bilkuretan.



UDALAREN KOMUNIKAZIO OFIZIALAK

Udalek maiz jakinarazi behar izaten dute hartu duten erabakiren bat, herritarrentzat interesekoa izan litekeen oharren bat edo beste edozein informazio. Bide desberdinak dituzte horretarako.


Informazio ofizial hori euskaraz izatea garrantzi handikoa da izaera orokorreko informazioa delako eta herritarren hizkuntza eskubideak bermatzeko.

Oraingoan komunikazio ofizial hori euskaraz izan dadin erabakirik hartu ote den aztertuko dugu.

Begi bistan denez, aztertu ditugun udalen gehienak erabakia hartua du, % 12,7ak soilik ez du erabakirik hartu alor honi dagokionez. Gehienek komunikazio hori euskara hutsezkoa izateko hautua egin dute. Kontuan hartu behar dugu aztertu dugun udal asko UEMAkoak direla. Gehienek modu batez edo bestez euskarari lekua eskaintzen diote udal erabakiz eta hori positiboa da.


Erdara hutsez izan dadin erabakia hartu dutenak Ipar Euskal Herrian kokatzen dira nagusiki. Kontuan hartu behar da Nafarroaren kasuan Gobernuaren hizkuntza politikak babestu egiten dituela horrelako erabakiak hartu nahi ez dituzten udalak eta zentzu horretan ez dute erabakirik hartu behar komunikazioa erdara hutsezkoa izan dadin.

EUSKAL HERRIKO DATUAK




EAE

EAEren kasuan aztertu ditugun udalen erdia baino gehiagok komunikazio ofizialak euskara hutsez eskaintzea erabaki dute ez bada kontrakoa esaten dela herritarraren aldetik. Erdara hutsez komunikatzeko erabakirik ez dugu aurkitu baina erabakirik hartu ez duten udalen jarduna erdararen aldekoa da kasu gehienetan.



NAFARROA GARAIA

Nafarroako egoera guztiz bestelakoa da. Hemen euskara hutsez komunikatzeko erabakia aztertu ditugun udalen heren batek bakarrik hartu du. Asko dira bestalde erabakirik hartu ez dutenak nagusiki Nafarroako Gobernuaren hizkuntza politika orokorrak babesten dituelako erdara hutsez jokatu zgero. Ez dute horretarako erabakirik hartu behar, alegia.



Ondorio orokorrak



Datuak ikusita honako ideia orokor hauek eskura ditzakegu:

1.- Desoreka handi bat ikusten da hizkuntza politika definitzen duten neurrien artean. Sustapenaren aldekoak, izaera asistentziala dutenak leku gehiagotan hartzen dira betearazleak baino. Ideia hau etengabe ikusi dugu 2006an azterketa hau egiten hasi ginenetik.

2.- Zenbat eta euskaldun tasa handiagoa orduan eta ausartagoak dira aplikatzen diren hizkuntza politikak. Mapak aztertuz gero, oro har, Gipuzkoako udalak eta Nafarroako Iparraldekoak nabarmendu behar dira. Azken hauen kasuan azpimarra berezia jarri behar da Nafarroako Gobernuaren hizkuntza politika orokorra ez baita euskararen sustapenaren aldekoa.

3.- Langile kontratatu berriak euskaldunak izateko erabakia ez da orokorra ezta unibertuala ere. Horrek eragin zuzena du motibazio pragmatikoetan. Gisa horretako erabakiak hartze hutsarekin bultzada handia eman lekiok euskararen normalizazioari.

4.- Harrigarria iruditzen zaigu ordenantzarik gabeko udalen kopurua nahiz eta arrazoi eta motibazio desberdinak dauden hori ulertzeko. Estatuaren jardun politiko judizialak baldintzatu egiten du aurrera egin nahiko luketen udalen lana eta horiek beste bide batzuk urratzen saiatzen dira. Horien beste aldean, ordea, oraindik ere utzikeriaz jokatzen duten udalak ditugu, Bilbokoa esate baterako.

5.- Plan orokorrik gabeko udalerrriak ere asko dira nahiz eta 2006tik hona aurrera egin den zertxobait kopuruetan.

6.- Handiak dira datu gehienetan EAE eta Nafarroaren arteko desberdintasunak eta Nafarroaren barruan iparraldea eta hegoaldearen artekoa. Hizkuntza politika aniztasun horrek lurraldea desorekatzen du eta normalizazio prozesua zaildu. Nafarroan lege bitartezko zaitiketarik kalte handia egin dio prozesuari.

7.- Alor sozioekonomikoaren alorrean eskuratu ditugun datuak bereziki kezkarriak iruditzen zaizkigu. Udal askotan ez dago egitasmorik espazio sozioekonomikoa euskalduntzeko eta kasurik hoberenean dirua edo asistentzia, itzulpenak nagusiki, eskaintzera mugatzen dira udalak.

8.- Osoko bilkuretan materiala erdaraz aurkezteak eta azpikontratutako zerbitzuetan erdararen presentzia nabarmena izateak hizkuntza irizpideen alorrean zorrotasun gutxi dagoela suposatzen arazten digu.

9.- Azkenik, esan beharra dago, hizkuntza politikak ezagutza tasak definitzen dituela. Hau da, zenbat eta euskaldun gehiago orduan eta politika aurreratuagoak garatzen dira. Politika horien gaitasun eraldatzailea baztertu eta errealitate soziolinguistikora egokitzeko ahalegina egiten da nagusiki. Hizkuntza politika ordea, errealitatea eraldatzeko tresna da.

